


# Armanak Uskara

edo

# Z


## iberouko Egunaria

1905 gerren ourthyeko



*Jinkoa eta Herria !  
Zuhurtarizona eta lana !  
Eta bizī bethi Uskalduna !  
Iao ! Iao !*

*I-a-a-a-a-o-o-o-o-o !*



SALTZEN DA

<i>Maolen</i>	⋮	<i>Atharratzen</i>
DETCHERRY enian		MENDIONDO-SANTZ enian

*Prezioa : SOS BAT*



### BEGITHARTE HORIEK :

- Ⓔ *erran nahi da* : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.  
Ⓕ       "       Argizagi azken laordena.  
Ⓖ       "       Gorapen hastia *edo* argizagi berritze.  
Ⓗ       "       Argizagi lehen laordena.
- 

### OURTHEKO BESTA ALDAKORRAK :

SETUAJESIMO, *baranthaila* 19<sup>an</sup>; — HAOSTE, *martcho* 8<sup>an</sup>;  
— BAZKO, *aphirila* 23<sup>an</sup>; — ERROGAZIONIAK, *maiatze* 29<sup>an</sup>,  
30<sup>an</sup> eta 31<sup>an</sup>; — SALBATORE, *arramaiatze* 1<sup>an</sup>; — PHENTE-  
KOSTE, *arramaiatze* 11<sup>an</sup>; — BESTABERRI, *arramaiatze* 22<sup>an</sup>; —  
ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *negila* 3<sup>an</sup>.

---

### LAOR THENPORAK :

Martcho 15 <sup>n</sup> , 17 <sup>n</sup> eta 18 <sup>n</sup> .	}}	Buruila 20 <sup>n</sup> , 22 <sup>n</sup> eta 23 <sup>n</sup> .
Arramaiatze 14 <sup>n</sup> , 16 <sup>n</sup> eta 17 <sup>n</sup> .	}}	Abentu 20 <sup>n</sup> , 22 <sup>n</sup> eta 23 <sup>n</sup> .

---

### EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :


Argizagi ulhunte phartezkoa, ikhousiren dena Uskal Herrian, *baranthaila* 19<sup>an</sup>. Arratseko zazpi orenetan dateke argizagia haboroenik itzalturik. — Ekhi ulhunte osoa *martchoko* 6<sup>an</sup>. Ezta ikhousiren Uskal Herrian. — Argizagi ulhunte phartezkoa *agorrila* 15<sup>an</sup>. Goizanko laor orenetara hullantzian dateko gehienik izalturik. — Ekhi ulhunte osoa *agorrila* 30<sup>an</sup>. Pharte ikhousiko die Uskal Herrian eguerditik aitzina, eta biak eterditara drano.



FOREL




### IRAKOURZALIARI



**Z**IBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe, mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigerren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., harek ourthe oroz behar du begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arround. Laour gerren arraldia orai bi ourtha hasirik izan da.



### ERRAN ZAHAR



**B**IHIKOR da nagiaren alhorra,  
Bena belhar tzar baizik hanti ezta horra.

Bourlarik gaichtoena, egia dioena.

Bertzgin gaichtoak, chilobaten thapatzeko, altchatzen diotzo bertzari zathikoak.


Dakian guzia ezterralla, ez jan bethi hire ahala.

Erasle handia ezta bethi mintzo egia.

Ederregia itchousigarri.

Edertarzuna, iraitte gutitako hountarzuna.

Edukan hire athea hersirik, eta ez erran aizoaz gaizkirik.



Egik hounki behin orer, eta gero, ahalbaduk,  
atzer.

→ Egik ountsa nik diodana, eta ez gaizki nik degi-  
dana.

Elheka ederra egunaren laburgarri.

Emak atherbe gaichtaginari,  
Bera dukek gero salhatari.

Emak hire chahala gogohounkara idok akal dezai-  
anari azkarrara.

Emazte ederra diana etchian, etchia etsai lurrian,  
eta mahastia karrikaltian, eztagoke kozinta gabe  
bihotzian.

Ergela da gordatzera doena berazanera.

Erhoak egiten diana ondarran, zuhurrak egiten du  
hatsarrian.

Erhoa da hasten diana urhent eztirokian lana.

Erhogoa da itho nahiari hedatzia eskia.

Erregala hadi, hi, hire doiareki, eta utzak zoroa  
nekatzera bere thusto nahiareki.

Ezagutu nahi hait hobeki, adichkidatu beno lehen  
hireki.

→ Ez ezagunik ez har lagunik.

Ez har besterena, ez galtzera eitz ihaorrena.

Ezin dirokianak nahi bezala, begi ahal bezala.

→ Ez min guziegatik atcheterretara, ez iharduki oro-  
gatik aozitara.





OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- ⊙ a. b., 5<sup>n</sup>, arratseko 6<sup>or</sup> eta 26<sup>m</sup>.
- Ⓓ l. l., 13<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 20<sup>m</sup>.
- Ⓢ a. o., 21<sup>n</sup>, goizanko 7<sup>or</sup> eta 23<sup>m</sup>.
- Ⓖ a. l., 28<sup>n</sup>, gaiherdi eta 29<sup>min</sup>.

BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren I eta erdiz.



- ⊙ a. b., 4<sup>n</sup>, goizanko 11<sup>or</sup> eta 15<sup>m</sup>.
- Ⓓ l. l., 12<sup>n</sup>, arrastiriko 4<sup>or</sup> eta 29<sup>m</sup>.
- Ⓢ a. o., 19<sup>n</sup>, arratseko 7 orenet.
- Ⓖ a. l., 26<sup>n</sup>, goizanko 11<sup>or</sup> eta 13<sup>m</sup>.



- |                      |                         |
|----------------------|-------------------------|
| 1 <b>Igante.</b>     | ZIRKONZISION.           |
| 2 Astelehen.         | s. Makaire.             |
| 3 Asteharte.         | sa Jenevieva.           |
| 4 Astizken.          | sa Fausta.              |
| 5 Ostegun.           | sa Amelia.              |
| 6 Ostirale.          | APHARIZIO.              |
| 7 Neskanegun.        | sa Melania.             |
| 8 <b>Igante. 1.</b>  | s. <i>Luzien.</i>       |
| 9 Astelehen.         | s. Julien.              |
| 10 Asteharte.        | s. Marzien.             |
| 11 Astizken.         | s. Teodoso.             |
| 12 Ostegun.          | sa Taziena.             |
| 13 Ostirale.         | s. Leonze.              |
| 14 Neskanegun.       | s. Hilera.              |
| 15 <b>Igante. 2.</b> | s. <i>Phaolé</i> , erm. |
| 16 Astelehen.        | s. Marzel.              |
| 17 Asteharte.        | s. Antoni               |
| 18 Astizken.         | J. Phetir. Err. Jarta.  |
| 19 Ostegun.          | s. Kanut.               |
| 20 Ostirale.         | s. Fabien eta Seb.      |
| 21 Neskanegun.       | sa Añes.                |
| 22 <b>Igante. 3.</b> | s. <i>Bizente.</i>      |
| 23 Astelehen.        | A. B. Ezkontz.          |
| 24 Asteharte.        | s. Timote.              |
| 25 Astizken.         | J. Phaoler. konb.       |
| 26 Ostegun.          | s. Polikarpe.           |
| 27 Ostirale.         | s. Johane Kris.         |
| 28 Neskanegun.       | s. Amadeo.              |
| 29 <b>Igante. 4.</b> | s. <i>Frantz</i> . Sal. |
| 30 Astelehen.        | sa Martina.             |
| 31 Asteharte.        | s. Petiri Nol.          |

- |                      |                      |
|----------------------|----------------------|
| 1 Astizken.          | s. Inazio.           |
| 2 Ostegun.           | KHANDERALLU          |
| 3 Ostirale.          | s. Blasi.            |
| 4 Neskanegun.        | sa Jana Val.         |
| 5 <b>Igante. 5.</b>  | sa <i>Agata.</i>     |
| 6 Astelehen.         | s. Aman.             |
| 7 Asteharte.         | s. Romuald.          |
| 8 Astizken.          | s. Johane Mat.       |
| 9 Ostegun.           | sa Apolina.          |
| 10 Ostirale.         | sa Eskolaztika.      |
| 11 Neskanegun.       | A. B. Lourdakoa.     |
| 12 <b>Igante. 6.</b> | s. <i>Jilbert.</i>   |
| 13 Astelehen.        | s. Jilbert.          |
| 14 Asteharte.        | s. Faosti.           |
| 15 Astizken.         | s. Maor.             |
| 16 Ostegun.          | s. Hiji.             |
| 17 Ostirale.         | s. Simeon.           |
| 18 Neskanegun.       | s. Konrad.           |
| 19 <b>Igante.</b>    | <i>Setuajesimo.</i>  |
| 20 Astelehen.        | s. Eucher.           |
| 21 Asteharte.        | s. Pepein.           |
| 22 Astizken.         | J. Petir. Ant. Jart. |
| 23 Ostegun.          | s. Petiri Dam.       |
| 24 Ostirale.         | J. MATHIAS, ap.      |
| 25 Neskanegun.       | s. Zezaire.          |
| 26 <b>Igante.</b>    | <i>Setsajesimo.</i>  |
| 27 Astelehen.        | sa Onorina.          |
| 28 Asteharte.        | s. Rufi.             |



MARFCHOA edo OSTAROA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ⊙ a. b., 6<sup>n</sup>, goizanko 5<sup>or</sup> eta 28<sup>m</sup>.
- ⊕ l. l., 14<sup>n</sup>, goizanko 9<sup>or</sup> eta 9<sup>m</sup>.
- ⊕ a. o., 21<sup>n</sup>, goizanko 5<sup>or</sup> eta 3<sup>m</sup>.
- ⊕ a. l., 27<sup>n</sup>, arratsuko 9<sup>or</sup> eta 44<sup>m</sup>.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.




- ⊙ a. b., 4<sup>n</sup>, gaiko 11<sup>or</sup> eta 33<sup>min</sup>.
- ⊕ l. l., 12<sup>n</sup>, arratsuko 9<sup>or</sup> eta 51<sup>m</sup>.
- ⊕ a. o., 19<sup>n</sup>, arratsuko 1<sup>or</sup> eta 47<sup>m</sup>.
- ⊕ a. l., 26<sup>n</sup>, goizanko 11<sup>or</sup> eta 23<sup>m</sup>.



1 Astizken.	s. Léon, Baion.	1 Neskanegun.	S. Hugues.
2 Ostegun.	s. Zinplize.	2 <b>Igante.</b>	<i>Gorozumako</i> , 4 <sup>a</sup>
3 Ostirale.	s <sup>a</sup> Kunegonda.	3 Astelchen.	s. Richart.
4 Neskanegun.	s. Kasimir.	4 Asteharte.	s. Ambrosi.
5 <b>Igante.</b>	<i>Kinkagesima.</i>	5 Astizken.	s. Bizente Ferr.
6 Astelehen.	s <sup>a</sup> Koleta.	6 Ostegun.	s. Zisto.
7 Asteharte.	s. Tomas, Ak.	7 Ostirale.	J. K Odol Pr.
8 Astizken.	HAOSTE.	8 Neskanegun	s. Albert.
9 Ostegun.	s <sup>a</sup> Frantzesa.	9 <b>Igante.</b>	PASIONIA.
10 Ostirale.	Elhorr. Khor.	10 Astelehen.	s. Makari.
11 Neskanegun.	s. Konstanti.	11 Asteharte.	s. Leon hand.
12 <b>Igante.</b>	GOROZUM, 1 <sup>a</sup> .	12 Astizken.	s. Jules.
13 Astelehen.	s <sup>a</sup> Uf azia	13 Ostegun.	s <sup>a</sup> Ermenejlda.
14 Asteharte.	s <sup>a</sup> Matilda.	14 Ostirale.	A. B. Dolor.
15 Ast. <i>IV Tb. B.</i>	s. Zakaria.	15 Neskanegun.	s <sup>a</sup> Anasztazia.
16 Ostegun.	s. Ziriaka.	16 <b>Igante.</b>	ERRAMU.
17 Ost. <i>IV Tb. B.</i>	J. K. Lantz. e. Itz.	17 Astelehen.	s. Anizet.
18 Nesk. <i>IV Tb. B.</i>	J. Gabriel, ark.	18 Asteharte.	s. Eleutero.
19 <b>Igante.</b>	<i>Gorozumako</i> , 2 <sup>a</sup>	19 Astizken.	s. Leon IX.
20 Astelehen.	s. JUSEF.	20 Ostegun.	<i>Ost. Saintu.</i>
21 Asteharte.	s. Benedit.	21 Ostirale.	<i>Ost. Saintu.</i>
22 Astizken.	s <sup>a</sup> Kiktruda.	22 Neskanegun.	<i>Nesk. Saintu.</i>
23 Ostegun.	s <sup>a</sup> Pelajia.	23 <b>Igante.</b>	BAZKO.
24 Ostirale.	Suario, S <sup>a</sup>	24 Astelehen.	s Zerazi.
25 Neskanegun.	<i>Anonziazion.</i>	25 Asteharte.	J. MARK, Eb.
26 <b>Igante.</b>	<i>Gorozumako</i> , 3 <sup>a</sup>	26 Astizken.	s. Klet & Marz.
27 Astelehen.	s. Johane Dam.	27 Ostegun.	s. Zerazio.
28 Asteharte.	s. Justein.	28 Ostirale.	J. Phaole K.
29 Astizken.	s. Pastor.	29 Neskanegun.	s. Petiri, m.
30 Ostegun.	s. Amadeo.	30 <b>Igante.</b> 1.	s <sup>a</sup> <i>Katalina</i> , S.
31 Ostirale.	J. K. Zaoriak.		



## AITA SAINTIA ETA GOBERNIA



HANITCH gizon entzuten dutugu mintzaten « *Concordat* » deithu kontratiaz eta haren haostia galthatzen die, jakin gabe habo-roek zer den *Concordat* hora eta zer lirakien haren haostiaren ondorioak.

Lehen Errepublika denboran, igaran ourtheo egunarian erranik izan den bezala, Frantzia guzia nahasirik izan zen eta gaizak oro gain beheratu zutien. Batere zuzenik gabe, oraiko Errepublikak fraide eta seroren hountarzunentako egin diana, lehen Errepublikak egin zian Elizaren hountarzunentako, oro beretu zutian eta legiak egin zutian erreligionaren itzalerasteko, elizak zerratuz eta aphezak hileraziz edo preşou ezariz edo Frantziatik kanpo igorritz.

Hanitch ourthe gabe populia debeiatu zen bititze suberte horrez; erreligionaren gabe izatiak ezaguterazi zeion haren beharrunia, noun ezten gizona jarri nahi salbajen herrenkian, eta Napoleon handiak, oraiko gobernazalek beno goratikago egiteko akikhosten zutian gizonak, bertan borogatu zian Frantzian etzela bakerik ez chuchentartzunik izanen Erreligionerik gabe. Bena zer egin hortakotz?

Jaon Touchet, Orleaneko aphezakupua aiphatiak, berriki zioan bezala, hanitch jente sosdunek erosi zutien kontratuz Elizaren hountarzunetarik; hala hala gobernamentiak begiratu zutian beretako hanitch komentu, aphezakuputegi, seminario, haier ethekara ziren founts handiekila. Zounbat prefeten palazio, zounbat liburutegi, zounbat ospitale, zounbat eskola

handi, zounbat tribunal, zounbat soldado tegi etziren, aitzinetik Elizaren etche edo etchalte zirenak, eta, zuzenik gabe, Errepublikak Elizari ebatsi zutianak?

Gaiza hori etzian chuchen edireiten Napoleonek; hounhartzen zian, gerlan kanou kolpuz etsaiaren lurrez jabe jartia; bena greugarri zeion ikhoustia, gobernamentiak zuzen gabe beretu zutian etche elibatzen borthetan gañen, izkiribatzen ahal zutukiela arrazouekin hitz horik: « Etche haou gobernamentiak beretu du ouhouinkeriaz! »

Ordian erran zeion Aita Saindari, egiteko horik berberak hareki chuchentzen ahal zutian gizonari: « Nahi duzia kontratu bat egin dezagun Elizaren hountarzunen zuzenik gabe jabe direnen zuzenetan ezarteko, Elizarekin kito ezarteko? » — « Eztat beste nahirik » ihardetsi zian ordunko Aita Saindiak eta eginik izan zen *Concordat* deithu kontratia, orai Combes ministro dohakabiak eta Combestiarrek, hala noula Berdoly Uskaldunen fama houn eta khiristiaren desohorazaliak, haotse nahi diena.

Concordataren arabera, lehen Errepublikak, haren aitzindari lehena beitzen Napoleon handia, ordian Bonaparte izenez, libertate osoa emanik zen Errelijione katolikoari, Elizaren hountarzunetarik pharte Elizari gobernamentiaz utzulirik ziren, eta legian ezagaturik zen, ourthe oroz, elizer, aphezkupier eta Elizako ministroer phakaturik izanen zela tratamentu edo paga beren gradoaren araberako bat, eta kondizione hoién pian Aita Saindiak hitzemaiten zian, Elizaren izenian, Elizaren hountarzunez zuzen ororen kountre jabe jarri zen gobernamentiarri bakia utziko zeiola hountarzun haien gozatiaren gañen. Concordataren arabera orano, aphezkupu eta archebiskoek, behar zien izan, lege zaharrian bezala, gobernamentiak haitaturik, eta Aita saindiak ounhetsirik, hounek berberak emaiten ahal beittutu Aphezkupugoak da-



duzkan kargia eta photeriak. Hala hala, kantounamentuko erretor doyen edo archipretra deithiak, behar zutien haitatu aphezakupiek eta gobernamentiak hounhartu kargu horientako.


Ehun eta bi ourthe igaran dutu Frantziak Elizareki Concordat deithu lege horren pian. Hirourgerren Errepublikako gizon aiphatienek, Erregen eta Emperadoren ondotik, Thiers zenak, Gambettak, Ferryk, Waldeck-Rousseauk, hounhartu die; orai, dagun ourtharilan berian, 1905<sup>ian</sup>, haoste gei die oraiko gizon photeretsiek Concordata, eginez lege bat, Combeseq, Mousde Loubet president ahalke-gabiarren eta bere ministro lagunen sinadurareki, jadanik lege egilen eskietan ezari diana.

Lege berri horren arabera, gobernamentiak beretu gei dutu bai elizak, bai aphezakuputegiak, bai aphezetchiak, bai seminarioak, bai fabriken arrandak, meza saritako utzirik izan direnak bestiak bezala, bai elizetako zerbutchatzen diren kapa, ornamentu, kalitza, ountzi sakratu guziak, khandalerak, khurutchiak, hitz batez gaizak oro. Berbera hounhartu-gei die lege berrian, elizen khristier hanko gaizeki pherestatzia, hamar ourtherentako, alokaidu baten truku, hamar ourthetarik alokaidu haren kondizionen arraberritzeko gisan. Nourkjarri behar duke alokaidu horren phakatziaren berme? Kantonamentukal, edo orano diozesakal, eginik izanen diren biltzarre elibatek, haietako pharteliantek ukhenen beitie aphezekin pre-sountegi edo amanda gaiza ezdeus elibatentako.


Lege berriaren arabera orano, aphezakupiek hamar mila liberaren lekhotan ukhenen die behin behin hamabia ehun libera eta gero... deusere, laor ourtheren burian, aphezek pagak gutiena erdiaz tchipiturik dutukie eta gero... laor ourtheren burian osoki idokirik.

Legarrak tchipituko dutieia horren gatik? Ez ez, bena katolikoek behar dutukie beren sosez hazi,

beztitu eta gizenterazi, hainbeste kargulant, framazou edo framazoutiar, haien ametsa beita errelijioniaren egoistia eta jentekentiaren arima salburik aberen pare ezartia. Nouiz oharturen zaitekatoikoer botzaren emaitia oraiko legeko gizoner, befen burier eta errelijioniaren galzetan aritzia dela?



### KHOUNTU ZAHAR : OSTATU CHOURIA



**B**AZEN lehenago, bena aspaldi diala! Maole eta Atharratzeren artian, eta bide handiari buruz, ostatu chouria deitzen zien ostatu bat, aitzinia latsun hourez arrahenki begithartaturik etchekiten zerelakoz. Ostalerrak, jente gisakoak, bazkouak egiten ourthe oroz, eta ez, hentako, gibeletik batere ari beharrik. Bidajantak gogo hounez eraisten ziren ostatu chouriala eta zaldiek ere hañ ountsa ezagutzen hanko ezkaratza, noun, eretziala heltzian, berak ukhuratzen beitziren.

Egunak ulhun eta llaburrialat ari ziren. Arrats batez, **G**abriel, ostatu chouriko naousia, borthan tchuti zelarik, bidajant bat, utchuraz ez nour nahia, eta gainti hetako etzena, zamari eder batekilakoua, ukhuratu zen etche aitzinian, bere eskia tchapeliala ezari eta erran ostalerrari: « Nahi nikezu aihaitara eta khanbera bat nihaourentako ». Gabrielelek, lehenik idoki zian bere ahotik pipa, gero, burutik bou-neta eta inardetsi zian: « Jinkoak benedika zitzala, Jaona! aiharia badukezu; bena khanbera bat zihao berberaren, ezteizugu emaiten ahal, zeren eta beitera, gañ hortan, sei mandozañ Españolat utzultzen direnak, eta, Ostatu chouriko sei ohiak harturik dititzie. » Ordian bidajantak: « Jinko houna! gizoun maitia,

egizu ez nadin kanpouan bara; tchakurrek badizie thegi bat; eztuzu zuzen khiristiek ez dezen ediren barneko etzangia bat, holako haroareki! » — « Jaoun estranjerra, zioan Grabiél ountsa phenatiak, eztakit zer erran besterik ostatia betherik dela baizik eta khanbera gorria dela baratzen... »

— « Eta emadazut houra! » zeron berhala erran kanpotiarrak.

Bena ostalerra buriari hatzez hasi zen eta chahu begithartez ulhuntu, ezpeitzian ihouratere emaiten ahal khanbera gorria bidejantari : « Ni Ostatu chourialatuz geroztik, zian erran azkenekotz, bi gizoun baizik ez tuzu, behin ere, lothu gune hartan; eta biharamenian, hen bilhouak chouri chouriak zutuzun, zounbat nahi belz ziren bezperan ». Bidejantak so luze bat egin zeron ostalerrari, erraiten zialarik : « Zoure etchen arren, gizoun maitia, baduzia hil arrajiten denik Ostalerrak ihardetsi zian ahapetik : « Baduzu! » — « Ordian, Jinko Jaon eta Andere Birjinaren gomendian! Suia phitz ezazu khanbera gorri hartan eta ene ohia lanhasta, zeren hotz beniz ».

Ostalerrak, manhatia egin zian. Aihaltu zenian, gai houn emanik mahañian ziren orori, bidejanta igañ zen khanbera gorrialat; ostalerra aldiz, bere emaztiareki, ikhara dar, dar, othoitziari hasi. Kanpotiarrak hatik, loeingiala heltu bezain sarri, bere ungurian so jarri zen... khanbera handi, su kolore bat, pharetiak thouna zabal eta argi eli bateki, odol be-roz boustirik izan balire bezala; zokhouan, ohe, luze bezañ zabal bat, oihal handi eli bat ungurian tzilintzaou. Beste arrastakoua oro hutsik; aizia marrakaz tchiminian eta bortha, leiho artiak gainti, arima, othoitze eskazalen botzak bezala.

Bidejanta belharikatu zen, Jinkouari ahapetik othoitu, eta gero, etzan lotsarik gabe : laster, louak hartu zian. Bena horra noun, gaiherdik joiten zialarik hurruneke elizabat etan, iratzartzen den, eta oihal

luze tzilintzaouakere zabaltzen diren haren eskuñetik... Ohetik jaitchi nahi beita, haren houñek zerbait hotz joiten die eta gibeltzen da harriturik !... Bazen han, haren aitzinian, hil-utcha bat, bere laour argieki, eta oihal beltz, nigar chouriekilakoua gañetik !

Jaouzi bat egiten du ohiaren beste gaintiala, hil-utcha ere hara jina du eta thapatzen dero igarangia.

Bost aldiz ohetik elkhitera eginik, bost aldiz utcha jarrizen haren zankho petan, bere argi eta oihal beltzareki. Eta ezaguturik, azkenekotz, bere galtho suertiaren egin beharrez zen hil batzela, beharikatu zen ohen gañen, eta, zeñhatu oundouan :

« Hila, nour hiz zeron oihu egin. Mintza hadi : khiristi bat duk hiri beha dena. »

Botz bat jalkhi zen utchatik, erraiten ziana : « Niz bidejant, oraiko ostalerraren aitzinekouek, heben, eho nundiena ; heriouak bekhatian atzamanik, erraitzen niz Purgatoriouan.. » — « Arima phenatia, zer nahi duk hire urgaizteko ? » — « Behar dutut sei meza Berhoetako Elizan eta debozione bat Sarrantzeko Ama Birjina gana, khiristi batek eginik enetako. » — « Hire sei mezak ukhenen dutuk, arima phenatia ; eta ni, khiristi nizana, nihaorjjoanen nuk Sarrantzeko Ama Birjinaren hiretako othoiztera. »


Bidajanta hola mintzatu bezañ sarri, argiak hil ziren, oihal luze, tzilintzaouak algarganatu eta bazterrak oro ichiltu. Kanpotiarrak othoiztian igarantzian gai oundarra. Biharamenian, oro erran zutian ostalerrari, eta gero : « Gizoun maitia, Mous de Irunberri nuzu, odol handikoua, balinbada Bachanabarren. Jouanen nuzu Sarrantzera eta sei mezen saria emanen dit. Ez ukhen arren, haboro arrankura gaichtorik, zeren bertan arimajelkhirik beitate phenatik. »

Hantik egun llaburren barnen, khanbera gorriak galdu zian bere odol khozalda ; jarri zen chouri eta alagera, bestiak bezala ; eta etzen haboro hartan eza-

gun beste herotsik, beren habiak hegatz pian egiten zutien añherena baizik; ez eta ageri deus besterik, hirour ohe eta khurutzifik bat baizik.



## LABORARIER AHOLKU



Nahi duzia osagarria ariman eta khorpitzian? zioan behin aphez chahar batek, laborari zounbaiti burüz mintzo zelarik. Begira zite soberatik edo gainti orotarik; zer nahi gaizatan doian eden zite. Ala jan edanetan, ala loan, ala libertimentietan, ala lanetan, ala elhestetan. Edo zoun gaizetan soberak edo doietik gainti joaitiak ogen dagio arimari eta khorpitzari; usian bier.

Sobera janez barnia higatzen da, marda behartzen eta theiutzen; holaz khorpitzaren trenpia okhertzen eta nahasten da; hortarik eritarzunak phizten. Ardou, sobera edatiak, eta haboro orano aigardent ohi edatiak, odola berotzen eta herakit erazten du, zañak bethi eta gehiago khechatzen dutu, emeki emeki dolore gaichtoak han eta heben sor erazten. Gisa hortan bater barnia erratzen eta galtzen zaie hein batetan noun, azkenian, ezpeitirokie jan, hazkurri mengoa chahu galdurik. Edanez baizik neke luzaz iraitia; eta edanago eta erreago, denbora llaburren barnen azkenekoz hiltzen.

Gizonaren khorpitz barneko phernak eta bizi erazliak ihourk ouste beno malhiago eta higakorragoak dira eta izari doian erabilten ezpadira, eztie iraiten. Hanitch eta hanitch jente; zahartuko zirenak osagarrianekin, holaz herbaltu dira ordu goiz, bai eta hil. Bena jan edanetan ohi gainti egitiak daduzka beste ondorio deithoragarriagorik. Gizonek soberakeria hoiez bere khorpitz gastatu dielako, haien haorak

mundurat heltzen dira osagarri hitsekoak, odolez batere sano, eta hola emeki emeki, bestañez eginen zen beno hanitch lasterrago, jente arraza mendrätzen, flakutzen eta tchartzen ari da. Bestalde sobera jan eta edanek beste franko gaitzetara badera maie, gizonaren boullta gaichtoak hanitch phizten eta sordeisten.

Hanitchek erranen die: nik eztut segurki sobera jaten ez eta edaten. Jatiaz eztut gaiza handirik aiphatuko, ezi gerthaldi bakhoitz elibatetarik kanpo, ezpeitira hanitch sobera janari aiher, ezpeitie bebarbada zouñ aldiz aski jaten ere, bena edatiaz besterik da. Jakin ezazie gizonen artian, bai laborari, bai ofiziale edo jornaletorren artian, hanitch guti direla sobera edaten eztienak; berheziki orano gizon eta ere mouthiko gazten artian, haiek beilukie beharrenik guti edan. Hanitchek igantetan, merkhatietan, elizabestetan edaten diena ountsa pharituz, bere lan eta nekatze ordietan edan baleze, elukie beharbada sobera, bena edaten dien bezala segurki sobera die.

Beste kostumabat sarthu da eretze haboroetan ountsa tzarra eta ogenkorra. Gizoun batzu ari dira kafe hartzen, hour edaten balie bezañ nasaiki: laor, bost, sei thazatarano. Haiekin aigardent edaten die, eta orobat artetik eta oundotik arikodira ardouedaten, drago, drago. Horik direla nahastekak! horik direla saltsak! Holakoek ez tie batere gogoan erabilten ez enthelegatzen ere gizonaren barnia zer daitekian; hola arizalek bere osagarria gastatzen die.

Kafiak berak zañak hanitch therritatzten dutu; eta ezagutzen tut franko gizon, azkar uduri direlarik, orai zañen gatik ezpeitira haboro bazkal ondoan ere menturatzen kafe edatera. Zer izan behar da hainbeste kafe hainbeste nahaste eta edari tzarreki? Ezta segur handi hainbeste eritarzun suberte, lehenago ezagutzen etzutienak, hedatzen balin badira bazterretan. Nouizian behin elizate gaichto hartzia thaza-

bat berbera ; bena thazabat thazatik landan thai gabe edatia da ondoko ourthetako eritazun luzen egiazko erazle hobenetarik.

Gizon emazte batzu badira sobera lan gose direnak, beren buriak lehertzen, eta bestiak lehert erazten dutienak. Hori ere gainti handia, zeren ezpeita khorpitz burduñaz. Lana maite ukhen behar da ; gizona moualde batez edo bestebatez lanera koundenatia da ; badirade khorpitzaren nekatze uniak ; orobat ere badira ezpirituko phena gizona gutiago higatzen ezpeitutie : bena lanetan ere izari doibat bada. Behar dela arren beharden denbora, beharden jarraikitarzunaekin lanian ari ; bena ez suhalamaka eta leher turik, noun ezten beharordu bereber zounbait.

Badira orano naousi eta etcheko andere schietarik sobera nahi dienak, sobera neka erazten dutienak, lo egiteko denbora aski eizten eztienak. Ezta segur oraiko langilen eritarzuna laneko sobera mengoa ukheitia : zounbat ezta nagi eta aohar bere bizia eroan beilirokie gogo hounez ! Zounbat aohar eta gormant beren eta besten ogenetan ari direnak ! Zounbat ere denbora ebasten dienak deusere egin gabe, langiteko phakaturik direlarik. Halere ezta zuzen boronthate houn diren langiletarik galthatzia doiaz goiti, eta eztira kabalen gisa erabili behar.

Eta egunko gaztiak, berheziki neskatilak, eztira franko eretzetan, lanian ari nahi bere amak bezala, hirietako anderen gisa bizi nahi. Hori beita gero miseria ikhousteko bidia ; hori beita boulhaso flakiegien ogena, ez eskolarena, zounbaiti uduri zaien bezala. Haorrak eztirade egoiten ahal eskolan erabili gabe lehen komunioa egin artian phuru ; eta oraiko legiak nahi du orano bi ourthez eskolalat joan ditian. Lehen ere orai bezala, eta noun nahi, haorrak odartino eskolalat igorri behar zutien. Ere komunione aitzinetik eta ondoko ourthian edo bi ourthetan eskolan ikhasiko dutien gaizek eztutie segurki lanetik

trabatuko. Eta edozouñ laborarien haorrek eztukie abantalla baizik uskaraz phuru leterabaten izkiri-batzen, eta bere khountu phichken chifruz egiten jakitiaz; bardin haorrian ikhasten badie, ezagutzen dutugu laborari etchekojaon hounak horrenbeste segurrik gazte denboran ikhasi dienak eta horregatik lana maite beitie. Edozouñ laborarien alhabek eztukie kalterik galtza, bai eta lisaketa bouchibaten egiten, orratzaren erabilten jakitiaz : ezagutzen dutugu laborarisa, horik jakina gatik laborari lanetan beharrunian araoera aridirenak.

Laborari boulhasoen egitekoa da halere haorren ez sobera eskolan zahartzera eiztia, noun eztiren behar apheztu edo errejentu, eta beren heña ikhousiz haor haien bere estatuko laner lotherazia hamahirour ourthetarik goiti segurrik. Ezi haorrek sobera ohitzera eizten badira eskolan, han ezpeitie lur lanetzaz aiphu deusere kasik entzuten, gero eztira nahi bere boulhazoen estatuko lanetan ari; mouthikoak zerbait gizaz nahi dira jaon izan, neskatilak anderetu nahidiren bezala. Horietarik jiten dira gehienik bazterretan higatzen diren aoher, aizephaile eta ezdeusak. Bai eta dohakabe dira nahi lukien bezalako etchalterik ez ukhenez zounbait joanen dira hor harat, besterik ezin eginez. Ameriketarat, ez leheneko hanitchek bezala fortuna egiteko, bena miseriaz bizitzeko. Ezi egunko egunian neke da han ere sos irabazia, eta nekiago orano irabazi sosaren begiratzen jakitia.

Gogo emazie arren laborari eta ofizialiak : zien haorren ogen egitia lizatekiala gehienik segurrik hourak zien estatiaz gorago hel erazi nahiz, eta segurkienik haien egiazko zorhouna eginen duziela haien goiz danik zien estatuko laner eman eraztez. Ez ahatz erran zaharbatek dioan bezala zaldi handiak zela handia behardiala. Ezouste ukhen khorpitz lana dela orotako nekegarriena, ez segur, hullanik ere; hanitchtto borogatu dianak erraiten deizie.



Jokian ere ez sobera denbora egon, ez sobera zoure buria behart : badirade, geroago eta gutiago hatik, lanian egun guzia eroaiten dienak, phaosa orde hutsartetan pelotan lehertzen direnak. Bena, guziz diharu guti baizik ez herriska jokian eta emazu guti hartan zoure mousaren indarren araoera : baten-tako bost libera beno haboro da beste baten hamar sos. Boulhasoen malhetarzuna hountarik ere ezagun da : goure gazte denboran hogeï sosekobat nekez sakolan ebiliko zien haor familiakoek ; egun bost liberakoak badabilze noula nahika. Hitzbatez guzia erraiteko, jokian aiher zirena, beha zite houni : eztezazula behin ere jokha, galtzen baduzu, bihotzmin handibat ukheiteko gisan. Irabazten baduzu, den gutiaz atse hartuko duzu, eta gutibat galdurik ere, etzira debollatuko loua galtzerano. Buhurriz eta urgulluz ez jokha behin ere.

*Zerbait orano etchekeko jaonentako.* — Zounbat prozes eta unguru gaichto legiak zer dadukan jakin gabian ! Ezagutu dugu bi aizo eta aldibatez beno haboro, laona mila libera gutienetik igorri beitie buhurri iza nez adichkider nahigabez behatu. Etzian hatik gairak hanitch balia : bizpalaor metraz baizik etzelarik aiphu. Erran degazun bi hitz ardura aizoen artian aharra phitzerazle diren zuhañez. Zer dio legiak ? Aizoaren mugetarik eztela bi metra beno hullanago zuhaintzerik lanthatzenahal, zuhaintze hourak bi metra beno gorago joaitekoak badira. Bi metraz petik egoitekoak ezarten ahaldira metra erdibat aizoko mugetarik hurrun. Aizoak jaozerazten edo moutzerazten ahal dutu legiak debekatzen dian tregoa hortan ezteren zuhañak, ezpada zerbait tritez edo kountratuz ounhetsirik, edo ezpada hogeitahamar ourtheren goiti zuhañak lanthaturik direla. Aizoaren fountzilaz zoure zuhaintzebaten adarrek tchorta emaiten badie, aizo horrek bort chatzen ahal zutu adarren phikatzero mugetan barnen edeiteko gisan. Bena zañak badira


fountsilat igaranik, zoure aizoak badu haien phikatzeke zuzena, bere mugetan egoiten delarik hatik.

Besten zuhañak ourthoukitzen edo phorrokatzen dutianak, haien galerazteko, zoubat nahi zuhañ hourak ez izanik ere legiak ezari tregoetan (ez pada hoientakozuzena emanik jujamentuz) zehadoibat merechi du sei egun presou gutienik sei hilabetetara gorenik, eta hori zuhainkal zehadoia halere egoiten delarik bost ourtheren pian, Enpheltubat edo aldiabat galerazten dianak merechi duke enpheltu bakhoitzaren, sei egunetarik eta bi hilabetetaranoko gaztelu. Eta halere bi ourthe beno haboro eztu ukheiten ahat ororentako.


Murru batek berhezten batu bi naousien lurrak eta murru hora alderdi bada (mitoyen) edo bi naousien, biek, bakhotchak bere gaintitik, arrimatzen ahal dutie frutatziak, bena eitzi gabe adarrak murria beno gorago joaitera Murria aldiz batena berbera denian, harek berak du frutatzen hari arrimu ezartia.

Erran zahar bat bada bi prozeskarietarik, galtzalia pikarra, eta irabazlia athorras etcherat utzultzen direla. Erranen dugun istoia haor prozes baboroak uduri da. Bi mouthikok hatzaman zien intzaor bat eta aharra gorrian sarthu ziren hartan gañen «nik bildudiat» batak; bestiak aldiz: Bena nik lehenik ikhousi diat... Hara heltzen den gizonbati galthatzen die bien artian juje izan dadin. Gizounak nabela sakolatik idok, eta berhezten tu intzaorraren bi partiak, kusu erdi bakhotcha husten, bata emaiten mouthiko batari, bestia bestiari: «Orizie, erraiten dere, bakhotchak kuchkiaren erdibat, barnia nihaorentako begiratzen dit, ezpeita segurki sobera, jujamentiaren sari.» Eta hor eitzirik, ez akort menturaz, bederen aharra bide haboro gabe, badoa intzaorra jantendialarik.





## LABORANTCHAZ



### I. — Uztak 1904 an.

**B**EHIN beno haborotan erran dugu armanak hountan, khamberetako deputatu eta senadorrek, laborantchaz aiphu denian emaiten du tiela elhiak tourroustaka obrak aldiz tchortaka, eta orano! Aithortu beharda urhentzen ari den ourthe hountan zerbait egin diela houn edo gaichto, edo egiatik mintzatzeko, bietarik. Sukrian gañen ezari legiaren ondoramenak ezagun dira orai : ezi ipharral-teko eretzetan betaraba sukredun usatiaz hanitchez gutiago ereñ die. Beste eretze orotan behar izan dira laborariak eta ardouegiliak aigardentetan gañeko lege berriari jarraiki, hain ountsa noun aorthen hanitchek ezpeitie aigardentik batere egin. Batentako eta bestentako galtze handia izan da, eta ber denboran langile hanitcheantako ere, eta galtze hori ez tie se-gurki bardintu igaran ourthe ko uzta nasaiek.

Badirade lege berri elibat laborarien hounetan... edo galtzetan : kabale erietan gañekoa chedatzen diana aragi bahitzen dutien truku emaiteko somak ; lihoa-ren eta kalamiaren altheko primak hedatu dutie sei ourthe aldiabatentako ; beste legebatek haizu eizten du Tunisia bere bihien igortera Frantziarat sar zuzenik haboro phakatu gabe. Bi lege berrik idoki tie kabalen hazteko enplegatuko dien sukren gañeko thal-lak oro eta kanpo igorteko fruta konserbetan egarten denarenak. Orano bada legebat, ez ardougile guti edo hanitch koki direnen althe, bena bai edalen houn datekiana, ardouetan egiten tien nahasteka tzarrak ephantchatzen balinbadutu. Armadetako aitzindari,

hazkurrietaz kargu dienak, haizu eizten tie orai eroster bihi eta belhar behar dutienen pharte merkhatietan.

Aorthenko ogi errekoilta ezta, hullanik ere, izan 1903 ekoa bezalako. Hatik ogiak ountsa abiatu ziren, eta guneka eder zirelako utchura emaiten zien. Bena idortiak gaitz handia egin derie, bai eta ere uztaila agorrilako bero handiek: bihia chehe eta chimal baratu da hanitch lekhotan. Ogiak hatik bildu tie haro ederrareki. Izan da *Bulletin des Halles* kasetak dioanaz 106 miliou 630 mila eta 700 ogi zaku, joan den ourtheho 120 miliouen orde, arren ourthebatenk bestila 22 milioutako eskaz bat. Orai berri goberniak bere aldetik ezagut erazi du prefeten bidez ukhen berrien arao, ogi uztak eziala aorthen eman 80 miliou zakuren heña baizik.

Arrakharderek berhala gora erazi tie ogi eta beste bihien koursak. Eta hatik goberniak, hilabete oroz emaiten zutian berrien arao ezagut erazten zian errekoilta hobenetarik zatekiala, laborantchako gasetek besterik erraiten zielarik. Zerentako dira arren hainbeste phakatzen dutugun laborantchako profezurrak? Atze herrietan, gourian bezala haroa ez althe izanez uzta eskazbat bildu die, Nort Amerikan berheziki. Bihia houn bilhatu da haboroetan halere. Gobernu hanitchek eskaz hori buru egiteko ezutue ogiak eitzi nahi zounbait denborarentako phuru bere herrietarik jalkhitera. Bi gaiza ageri dira klarki oraidanik: orotan ogiaren prezioak goraturik dira eta ezta igaran ourthian baratzen zen bezanbat bihi zaharretarik.

Olho izan da ouste zien beno haboro nahi bada hanitch eretzetan beroak gaitz egin deren, Garagarra hobeki buhurtu da haroari; sekale izan da guti.

Gorago erran bezala, bettaraba sukredun hanitchez gutiago egin die, eta sukre lankhiak galtzetan ari izan dira azken sasouian, eta galtze handitan, betarabak khario phakatu beitzutien, eta behar ukhen beitzutie gero sukriak prezio aphalian eman.

Mahats izan da eretze orotan eta hanitch, nahiz eztiren guneka mouhouriak hazi haroa boustichago izan baliz bezala. Bildu die denbora hounarekin eta ardou egin, hanitch eta houn. Maite dienak eztutu araoz egarriak hil eraziko, ezi hogeita hamar ourthe hountan etzien hainbeste eman mahastiek. Frutaz bazen izigarria, eta orotarik; begiratuko dira hatik aski nekez; batak usatu beno bertanago hountzen dira, ala neguko udari, ala sagar, bestiak hirotzen. Gaztaña bazen ere gaintika, bena eztira hazi beste ourthez bezain ountsa, eta gune haboroetan chehe baratu dira. Lur sagarraz halaber erran daite; chehe hanitchez haboro, eta ez luzaz begiratzeko net houn. Eritartzunak ere jo dutu hanitch bezterretan. Betaraba bazkageiak eman du eijerki; erroak tchipitto baratu ziren buruilala drano, bena ordunko haro euriziak houn egindere eta hein doi batetan hazidira. Kabalek die orano eman laborarier mouzkin ederrena; bazka merke beita haboroetan, haboro hazi ahalko die. Diala bi edo hirour ourthe arthaldietan sarthu zen eritarzuna emeki emeki ezabatu da, eta orai ezta ezagun ihounere kasik badela.

*Ziberouko uzten berriak.* — *Ogi*az aiphu, etzen izan hanitch ourthe hountan aorthen bezañ ogi aphur; zounbait laborarik eztie ukhen usatiaz erdia beno gehiago; haboroenik eraiki dienek ukhen die usatutik nounbait hirour phartetarik biga.

Beren esperantcha ezari zien *arthoan*, bena gune borhezi eli batez kanpo, zouñtan adarka thenpesta zounbaitetan agitzen dienerauntsi houn elibatek lurra bousti eta gizentu beitie, arthoa hazi gabe, goizik zohitu da, idorte luze batek bortchaturik. Haboro herrietan arren artho guti, eta denetik borthakoer, gizenterazi nahiz eman ondoan, borthakoak ezin sal, hañ beitera merke.

Bihiaren eretzetik ourthe tcharra 1904 koa izan da laborariarentako.

Gaztaña hatik aosarki bazen eta intzaortze badienek aorthen sos ederrik egin die, intzaor hanitch izan beita eta dienak aski ountsa saldu beitira.

Lur sagarrak ere eman du ountsa, ilharrak aldiz guneka, berheziki idortiaz sobera errerik izan ezteren alhor eta baratzetan.

Mahatsari, beste hanitch gaizer ezik ere, houn egin deio idortiak. Gune haboroetan aosarki bazen, ountsa hountu da, eta ardou hounik egin da bazterretan.

Mahats ardou bezala, sagar ardou egin ahal izan die etcheko jaon hanitchek. Etcheko andere zuhurrek, geroaz arrankura dienek, eztutie utzi gereziak eta sagarrak hirotzera bena gathulu eta theriza hanitchen bethatzeko erresoumat egin ahal izan die.

Belhar behinere beno haboro izan da, arradall aldiz, behinere beno gutiago.

Hitz batez ourthia ezta izan hoberenetarik.

Jinko, mahatzen diana berak ekhiari, odeier eta lurari, eman dezala ourthe hobe bat 1905<sup>ian</sup> goure laborarier!

## II. — Lursagarren eritarzun berribat.

Eritarzun hori hasten da ondoen gastatzetik, emeki emeki ostoak ere gastatzen dira, sagarrak eztira hazten eta biltzen direnak khozaturik baratzen dira eta denbora luze gabe hourak ere hirotzen. Ezagaturik da eritarzun hori, batetan, hanitch lekhutan, abiatu zela.

Ountsa estudiaturik izan da eta edirenik izan da nountik jiten den; bena, behin hasiz geroztik, haren ukkura erazteko edo galerazteko sendagallia ezta orano edirenik. Hatik, eginik izan diren esprabiatarik, borogaturik da, eritarzunari hobekiago buhurtzen direla, lursagar azi osöetarik jiten direnak, eziez eta lursagar handi bouchinkatietarik sorthu direnak.

Hartakoz azitako hobeda ezartia lur sagar oso, ez sobera handi, ez sobera tchipi, artekoetarik. Usiegi ber lurrian lursagarren ereitiak lur houra khozatu badu, behar da behin behin baratu hartan lursagar arraereitetik. Behar da begiratu lur lanen egitiareki ondoen, erroen eta sagarren ere makatzetik, makadura ezdeus bat aski beita eritarzunaren khoziaren lanthare guziari heda erazteko. Horrik direla erremedio gehienak eritarzun horren phiztiaren ephantchatzeko houn ezagaturik direnak.

Noula borogaturik izan beita, goure herri aldian berheziki, eritarzun hori jiten dela berantian, Frantziako laborarien botigoak gomendatzen deiku erein ditzagun lursagar goichtiarrenak, berantiarretarik, eta haietan berheziki Imperator deithu lur sagarra, hobekiago enjogi beitira eritarzunari, ahal bezain guti egitia.

### III. — Gorotzurphoko ichouriaren balia.

Laborantchako gaizetan eskola hartu dien gizonak eta laborari zuhurrek orok badakie zounbat balious den gorozurphoaren ichouria, frantzesez le purin deitzen dena. *Boussingaultek* erraiten zian : « Nahi baduzu jakin laborari baten beniaren eta zuhurtziaren berri, kasu egiozu noula egiten dian gorotzurphoa. » Bere aldetik *Girardinek* zioan : « Laborari batek, edo aoherkeriaz, edo gaiza tchিয়ে kasu hartzen eztiialakoz, uzten balin badu bere gorotzurphoaren ichouria joaitera edo hour ukhuatietara, edo arrollala, edo bidiari behera, erraiten ahal da laborari harez bere sosa hourialat ourthoukitzen diala, edo bide-tan ereiten dutiala bost liberakoak. » Eta librietarik ehunka holako erranak idok ahal gintzazke. Bat berbera orano eman dezagulá Mousde *Sagnier*, en sinadurareki, laborantcharen gañeko kaseta batetan irakourten duguna : « Orai diala berrogei bat our-

the, Dunkerqueko arrondissementuko, laborantchari hanitch etchekiriki zen jaon batek, Mousde Alexandre Vandercolmek, ikhousirik zer kasu tchipia hartzen zien gorotzurphoez bere herritarrek, gogoan igaran zian behar ziala hortan gañen usantcha zaharra khanbiaerazi. Erakatsi zian laborarier, noula despendio handirik gabe gorotzurphoaren ichouria begiratzen ahal zien, eta ephantchatzen ere, gorotzurphoak, hegatzeko ichouriez látsaturik izatetik. Berak eskentu zeien, bere khostuz, hortako behar ziren lanen egineraztia, kondizionereki, hirour ourthez, gorotzaren hobetzetik ukhenen zutien mouzkinen erdia, harentako erreserbiko ziela, berek estimatzen zielarik zounbatetara heltuko zen mouzkinen emendio houra. Hanitchek, jaon haren khostuz, gorotzurpho lekhiak beste gisa batetara ezari zutien eta, gutiz bestetan, lehen ourthetik beretik, jaon harek idoki zian mouzkinen hobetzetik, aitzinatu zian diharu guzia. » Etsenplu horrez balio du kountu etchekitzia.

#### IV. — Ñaboa.

Kabaler jatera emaiteko houn diren lanthare, uztailan edo agorrilan ereñ, eta nasaiki urrietan jiten direnetarik bat da ñaboa. Anglatteran hanitch ñabo eraikiten die eta goure herri aldian ere iseiu hounik eginik izan da, Uskal Herriaz berbera mintzatzeko, Laphourdin.

Lurra aoher den hilabetetan jinerazten da ñaboa, eta, behi eznadunentako berheziki, hazkurri hoberenetarik bat da, betterabaren ordari baliatzen ahal dena. Lurrak behar du golde nabar arhin bateki utzuli, behin ountsa arhiaz igaran, eta ordutik, heñik hoberenian datche aziaren hartzeko uztailaren azken egunetan edo agorrilaren lehen amoustkerian bi ithegunentako ezarten da azi lao edo sei kilotara



artino, ogia bezala ahurretakaz ourthoukitzen delarik. Beste azi chehek bezala, galthatzen du ñabo aziak guti thapaturik eta ountsa unkhiaz zaphaturik izatia. Naboaak ountsa agerturik eta altchatzen hasirik direnian, bekhantzen dira arhaldi houn bateki.

Mousde Courtinek zuzenki erraiten du ñaboa hanitch balious den lanthari bat dela, zeren den bertan jiten eta zeren dian guti denboraz lurra behartzen. Nounbait 20 edo 25 mila kilo ekharten die bi ithegunek. Hougarririk ezpazaio ezarten, galthatzen du berere aitzinetik ber lurrian eraikirik izan den lantharia ountsa gorotztaturik izan dadin.

Phosphate dien hounkalliak neseari dira ñaboentako, zañak eginerazten dutie eta ñaboaak bertanago hounterazten. Mousde Courtinek, goizenik jiten dien ñaboekan gomendatzen dutu berheziki nabochouri zabala (navet plat blanc), sei astez horra dena eta goizik jan-crazi behar dena ; olandako ñabo goichtiarra (navet hâtif de Hollande), ñabo biribil goichtiarra (plat rond hâtif), Aubernako ñaboa (navet d'Auvergne), etc. Beste suertiak, hala noula : navet de Norfolk, navet rose du Palatinat, navet long d'Alsace, baratchago horra dira, eta kalitatez hobe dira ; galthatzen die goizik ereitia beste zerbaiten ondotik jinerazten badira, edo berberak lurraren uzta gehienaren izatia.

Houna gomendu berhezi elibat : Ereñ ezazie azi hounetik lurra adelatu bezañ sarri, gero eman *nitrate de soude* hounkallu komerziokotik ; lureko kukusoari (altise potagère) buhurtzeko ; nahas ñabo aziareki moustarda azitik ; pierrota arhinki igaran goizan ; ihitzareki eman latsun erhaots ahal bezañ chehe ostoeer lotherazteko ; khedarria, haots ahal oroz chehe, houn dira orano baratzetako kukusoen kountre.

## V. — Baratze aitzurtzia larrazkenian

Errana den bezala hanitchko gaizak egin behar die lekhian lekhuko gisa. Larrazken urhentzian baratzia husturik dirade. Frantzia gainian hala hala, ereintzarik egin gabe, utziko tie bedatse hatsarrila artio. Eguerdiari, goure gaintian, zounbait baratzeko gaiza lurrilatzen dirade orai danik, negila gabe. Hobe deia hola egitia? Izan deite. Frantzia gainian elizate hain aisa khausita, negia ipharrilatko gaintialat ago eta borthiz ago beita.

Kharrounte handiek ereitza flakutto direnak joi-tenago dutie, ageri den gaiza da. Goure gaintian ere ereitza zoubaitentako negu ondoua, bedatse hatsaria, egurukitzen da; lekhia amurrurik gabe habouretan eitziko da, behin hustu ondouan, haitzur edo phala khaldu bat eman gabe. Martchoua heltu denian, ereitza lekhia hountuko, haitzurtuko da. Haitzurt eta berhala prestatuko, arrouchka ereinen, lurraren tchestiari kasu handirik egin gabe, berheziki martchoua boustite izan bada Lehen bai lehen aziak eta lanthariak lurrilatko dirade, berantzen ari delakoz, denbora abantzatzen.

Deus eztonatzekorik presaka, noula nahichka lanthu lurretan, nekez jiten badira ereitzak; lurrari, denborari edo aziari emanen da ogena, hoiek ichil ichila hartzen beitie.

Ezaguturik da alhorretako ereitziak lur ountsa lanthian aisago jiten eta honditzen direla. Erraiten ahal da baratzetan eraikitzen dien gaizak lan gosiago baidzik eztirela, minberago.

Bedatseko ereitze lekhiek behar lukie larrazkenetik hountu eta piazgoratu. Gorotz eginberria lurrak hartzen du negian; bedatsian lehenik eta gero udan bere indarra oro lanthare emanen du. Hountze hori egin baledi aldiz bedatsian eta gorotz zahar eztenetik,

emendio horri elitzake alha ahal lanthariaren zain tchipiak.

Gorotza ments bada haitzurtze horrek egin behar dian phuntian, bedatsian hountuko dirade ereitze eta lanthare lekhiak ; bena gorotz zaharrez.

Lurrak nountik nahi zotukatu behar duke hustu denetik bertan, kharrouak jin gabe. Oroz gainetik baratzeko lurrak lachu izan behar du ereitzen aisa jiteko. Deusek aldiz eztu hala choratuko noula neguko kharrounte handiek. Lurra eleite hain tchestu hounian jar kharrountiak bethi irain baleza ; kharbiouak du thortollatzen, behin hourtze eta gero gogortziak, kharrountatze deskharrountatzek.

Lan bat da bedatsian presan piazgoratu lurraren haitzur khalduz tharrokatzia. Ezta behin ere hala lanthuko: Larrazkenian zotukatu lurrak aldiz eztu lan handirik galthatzen ; hanitchez hobeki irintzen da.

Errana da jorratze bat bi hourtatzen balde dela ; erranik izan da ere lur, kkarrountian aitzinetik piazgoratiak, eztila hountu beharrik. Erran hortan bada duda gabe emendio amiñi bat: kharrouak eztu lurrari emanen gorotzaren gozouetarik hambat ; nountik eman ahal liro ? Bada hatik egia pharte houn bat. Gorotzak eztu berbera emaiten lanthariari dian hazkurria, lurra orano lachatzen du, berouaren, aidiaren zaiñetara heltzia aisatzen.

Lurraren erabilte hortako bi-hortzekoua beno ountsaz hobe ezagaturik da *phala*. Phalaren herechan lurra hobeki baratzen da, eztelakoz hala tinkatzen ; zotukatu berriaren zankhouez irouchkitia gisa oroz gachto da, etzaio aidia barneatzen, ez eta ere kharroua, haren thorrazalia.


Deusegatik ere tharrokek ezte behar hautse, handiago dirate eta hobe baizik ezte.

Lur handietan, thiranetan lur erabilia athekatzen da, kharrouer hobeki phara dadin. Athiak biribil-


chka gañila zorrotzara egiten direlarik ebitetarik landa hanitchez bertanago tchukatzen dirade.

Ountsatto thiran diren lurrek piazgoratze aitzinetik hariñastatu eta hobeki orano mourterestatu behar lukie; mourter edo plastre zaharrak arhintuko dutu.

Larrazkenetik ereitze lekhien piazgoratziaren hoununiak horik dirade : ereitze lekhia presta ehigo da; azia lurrilat goizago ezarten ahal da; bertanago eta ederrago jiten da.



## ISTORIA ETA ERASI



**O**STATU batetako bortha aldegañian izkiribaturik ziren hitz horik : Egun phakatz, bihar kitorik.

Gizon batek hori irakourturik, bere gogoari : « Ai ! bihar zer asia bildu behar dudan etche hountan ! » Biharamenian badoa erran delako ostatiala, eta galthatzen du bazkari houn bat. Egiaz ase ederbat egiten du eta bere oustez kitorik chorroa ountsa betherik, abiatzen da etcherat. Bena etcheke anderiak erraiten dero : « Bena adichkidia, etzira joaiten ahal phakatu gabe. » — « Zer arren ! dio gizonak, atzo zouren borthan gañen irakourtu dit egun kitorik zela. » — « Tziaori, irakour ezazu behar bezala : egun phakatz ; egun, entzuten duzu, egun phakatu behar duzu, zer nahi izanik. » — « Eta bihar ? » gizonak aitzina. — « Izkiribu hounek dioan bezala ; bethi hao duzu mintzo dena. » Gizona bere gogoan sarthurik bezala egoiten da artellaburbat eta gero erraiten du ostalersari : « Zer debru chikana tcherkhatzen deitazu hor ? » Halere behar ukhen zian phakatu eta joan zen mourmoutzikatzez etziela berriz hatzamanen.

Naphurdoiko semiak etzian oskirik, bai aldiz beharra eta nahia. Ezpeitzian sosik erosteko, haboro ezizete koutzentziarik, houna noula dunthu zen. Lagunbateki aitzinetik hitzartu ondoan noula beharko zien egin, sarthu zen boutigabat etan eta iseiatu zutian oski pare zounbait: Nouizere doiak agitu beitzetizon, alegia jakiteko eia mankhatuko zienez, hasi zen urhats zounbaiten egiten kanpoat buruz. Sekula athera heltu zeneko, errandelako lagunak emaiten derobeharrondokobat. Harek ordian: « Ago, ago! oihuz ari zaiolarik, hizan bezalako kokillota! phakatuko dereitak. » Eta hainbestenareki laster egin zian jozaliaren oundotik houura hatzaman nahiz. Eztakit algarjuntatu zirenez azkenekoz, bena oski berrien iseiazalia etzen ja haboro utzuli salzalia ganat.

Bilkhura ouhouragarribat etan nourbaitek galthatzen zian zouin den Izkiribu Saintietan irakourtzen den mirakullurik handiena. Bazter zegoen eskolako haor bat, nahiz etzen hari buruz eginik galthoa, chutitu zen hain sarri eta erran zian gorarik: « Nik badakit. Houura duzu Heliasi agitu zeron; suzko karrochabatetan altchaturik izan zen eta souñekoak etzeitzon batere erre. » Han zen jaonetarik batek, haurrari buruz unguraturik erran zeron: « Eztugu hori ez; Biblako mirakullu handiena duzu Balaanen astoaren mintzatzia, ihouren galthorik gabe. »

Bi emazte, begithartia gorri gorria, jalkhitzen ziren merkhatu arrastiri berantian Maole Arringolako ostatutik. Bere zaldi beharri luzen adelatzen ari dire-

larik, khantuko bi gizounek bata bestiari, haier so dirarik : « Gaor heltuko othe dira etcherat? » Nahiz jakin nounko ziren, batek galthatzen dere : « Hurruneko zidieia? » Haiiek arrapostu : « Bai askitto. » — « Bena nounko zidie », gizonak aitzina. Emaztetarik batek hain sarri : « Badakizu noun den goure labetegia? arren haren khantian duzu goure etchia. »

Beha zite kokillotari : ihounere eztuzu halakogizon galantik. Houna zer dioan khountu zaharrak. Behin batez, ouhouin bat kerementaz ari zen bere adichkidebati koundenaturik izan zelakoz. Harek erraiten zeron : « Bai bena hik ere zer hian gogoan, hala egunaren erdi erdian bohor baten ebasten aritze-ko? » Bestiak ordian : « Zer! nik ebatsi dudala bohorbat! Eztezala aments holakorik erran. Sogik noula agitu zeitan. Banoundoelarik naousiak echi mezubaten egitera, kharrika tchar hersi batetan trebes atzaman nia bohorbat, igarangia oro thapatzen ziana. Nahi nuk gibeletik igaran, oihu egiten ditadek : « Begireizu, gizona, ostikatabat emanen deizu. » Abiatzen nuk aitzinetik, eta berriz oihuz ari ziztadak : « Etzitza-keiola aitzinetik igaran, bestela ousoukiren zutu. » Nik arren ordian eniala ez ousoukirik, ez ostikatarik bildu behar, gogoratzen zitadak hobedudala gañetik igaiñik. Ezarten dioiat arren zankho bata eztriberan, bena zer egiten dereit debru bohorrak? Biggerren zankhoa beste gaintilat ezari dudaneko, erhotzen zitak bohorra eta laohazka eroaiten nik, bature ekhuratu gabe, bost lekoitan harat. Eta orai, ene adichkidiaz er uduri zaik? Hori deia bohorren ebastia? »





## MAIATZA edo EPHAILA

Eg. luzatzen dira oren eta laordenez




- ⊙ a. b., 4<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 59 min.
- ⊕ l. l., 12<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 55 min.
- ⊕ a. o., 18<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 45 min.
- ⊕ a. l., 26<sup>n</sup>, gaiko 2<sup>or</sup> eta 59 min.

## ARRAMAIATZA edo BAGILA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22<sup>a</sup> drano.

- ⊙ a. b., 3<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 6 min.
- ⊕ l. l., 10<sup>n</sup>, arrastiriko oren eta 14 min.
- ⊕ a. o., 17<sup>n</sup>, goizanko 6 orenetan.
- ⊕ a. l., 24<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 55 min.



- |    |                   |                            |
|----|-------------------|----------------------------|
| 1  | Astelehen.        | J. Filipe et Jak. Ap.      |
| 2  | Asteharte.        | s. Atanasio.               |
| 3  | Astizken.         | D <sup>na</sup> Khurutze.  |
| 4  | Ostegun.          | s <sup>a</sup> Monika.     |
| 5  | Ostirale.         | s. Pio V.                  |
| 6  | Neskanegun.       | J. Johane Eb. B. L.        |
| 7  | <b>Igante.</b> 2. | s. Stanizlaz.              |
| 8  | Astelehen.        | J. Migel. ag.              |
| 9  | Asteharte.        | s. Gregori, Na.            |
| 10 | Astizken.         | s. Antoneñ.                |
| 11 | Ostegun.          | s. Orienz.                 |
| 12 | Ostirale.         | s. Nere eta Akil.          |
| 13 | Neskanegun.       | s. Jenio.                  |
| 14 | <b>Igante.</b> 3. | Johane Sala, d.            |
| 15 | Astelehen.        | s. Eutrope.                |
| 16 | Asteharte.        | s. Johane Nep.             |
| 17 | Astizken.         | s. Paskal.                 |
| 18 | Ostegun.          | s. Venanzio.               |
| 19 | Ostirale.         | s <sup>a</sup> Pudenzieta. |
| 20 | Neskanegun.       | s. Bernardeñ.              |
| 21 | <b>Igante.</b> 5. | s. Petiri Zel.             |
| 22 | Astelehen.        | s <sup>a</sup> Kiteria.    |
| 23 | Asteharte.        | s. Ubalde.                 |
| 24 | Astizken.         | A. B. Lagunt.              |
| 25 | Ostegun.          | s. Gregori VII.            |
| 26 | Ostirale.         | s. Filipe Neri.            |
| 27 | Neskanegun.       | s <sup>a</sup> M. Mad. P.  |
| 28 | <b>Igante.</b> 5. | s. Jermein.                |
| 29 | Astelehen.        | Errogazioniak.             |
| 30 | Asteharte.        | s. Felis.                  |
| 31 | Astizken.         | s <sup>a</sup> Anjela.     |

- |    |                   |                              |
|----|-------------------|------------------------------|
| 1  | Ostegun.          | SALBATORE                    |
| 2  | Ostirale.         | s. Poteñ.                    |
| 3  | Neskanegun.       | s <sup>a</sup> Klotilda.     |
| 4  | <b>Igante.</b>    | s. Frantzes, K.              |
| 5  | Astelehen.        | s. Bonifazi.                 |
| 6  | Asteharte.        | s. Norbert.                  |
| 7  | Astizken.         | s. Majan.                    |
| 8  | Ostegun.          | s. Medart.                   |
| 9  | Ostirale.         | s <sup>a</sup> Prima.        |
| 10 | Neskanegun.       | s <sup>a</sup> Margarita.    |
| 11 | <b>Igante.</b>    | PHENTEKOSTE.                 |
| 12 | Astelehen.        | s. Johane.                   |
| 13 | Asteharte.        | s. Antoni, P.                |
| 14 | Astiz. IVTh.B.    | s. Basila.                   |
| 15 | Ostegun.          | s <sup>a</sup> Jermena.      |
| 16 | Ostir. IVTh.B.    | s. Franzes R.                |
| 17 | Nesk. IVTh.B.     | s. Avit.                     |
| 18 | <b>Igante.</b> 1. | TRINITATE.                   |
| 19 | Astelehen.        | s. Jervaci eta Prot.         |
| 20 | Asteharte.        | s <sup>a</sup> Juliana Falk. |
| 21 | Astizken.         | s. Louis Gonz.               |
| 22 | Ostegun.          | BESTABERRI.                  |
| 23 | Ostirale.         | s. Eusebio.                  |
| 24 | Neskanegun.       | J. JOHANE BA.                |
| 25 | <b>Igante.</b> 2. | s <sup>a</sup> Eurosia.      |
| 26 | Astelehen.        | s. Johane eta Paole.         |
| 27 | Asteharte.        | s. Prosper.                  |
| 28 | Astizken.         | s. Irene.                    |
| 29 | Ostegun.          | J. PETIRI et P.              |
| 30 | Ostirale.         | J. BIHOTZ SAK                |



## UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1ez.




- a. b., 2<sup>u</sup>, arrastiriko 5<sup>or</sup> eta 59<sup>m</sup>.
- l. l., 9<sup>n</sup>, arrastiritiko 5<sup>or</sup> eta 50<sup>m</sup>.
- a. o., 16<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 41<sup>m</sup>.
- a. l., 24<sup>n</sup>, arrastiriko 1<sup>or</sup> eta 18<sup>m</sup>.

## AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- a. b., 1<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 12<sup>m</sup>.
- l. l., 7<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 25<sup>m</sup>.
- a. o., 15<sup>n</sup>, goizanko 3<sup>or</sup> eta 41<sup>m</sup>.
- a. l., 23<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 19<sup>m</sup>.
- a. b. 30<sup>n</sup> arrastiriko 1<sup>or</sup> eta 22<sup>m</sup>.



1 Neskanegun.	s. Tierri.	1 Asteharte.	J. Petiri kati et.
2 <b>Igante.</b> 3.	A. B. BIZITAZ.	2 Astizken.	s. Alfonso, Lig.
3 Astelehen.	s. Gillen.	3 Ostegun.	J. Eteber. edir.
4 Asteharte.	s. Léon II.	4 Ostirale.	s. Dominiche.
5 Astizken.	s. Zirile eta Met.	5 Neskanegun.	A. B. Elhur.
6 Ostegun.	s. Trankile.	6 <b>Igante.</b> 8.	J. K. Transfig.
7 Ostirale.	s. Marzial.	7 Astelehen.	s. Kajetan.
8 Neskanegun.	sa Beronika.	8 Asteharte.	s. Ziriako.
9 <b>Igante.</b> 4.	sa Elisabeth, P.	9 Astizken.	s. Jermeñ.
10 Astelehen.	Zazpi anaie m.	10 Ostegun.	s. Laorentz, m.
11 Asteharte.	s. Pio.	11 Ostirale.	s. Tiburze.
12 Astizken.	s. Johane G.	12 Neskanegun.	sa Klara.
13 Ostegun.	s. Anaklet.	13 <b>Igante.</b> 9.	sa Radegonda.
14 Ostirale.	s. Bonaventura	14 Astelehen.	s. Eusebio.
15 Neskanegun.	s. Henrik.	15 Asteharte.	A. D. MARIA.
16 <b>Igante.</b> 5.	A. D. M. KARM.	16 Astizken.	s. Rok.
17 Astelehen.	s. Aletsis.	17 Ostegun.	sa Emilia.
18 Asteharte.	s. Kamille.	18 Ostirale.	sa Elena.
19 Astizken.	s. Bizente Paolo.	19 Neskanegun.	sa Filomena.
20 Ostegun.	s. Filibert.	20 <b>Igante.</b> 10.	s. Joakin.
21 Ostirale.	s. Pratseda.	21 Astelehen.	s. Julien Lesk.
22 Neskanegun.	sa M. Madalena	22 Asteharte.	s. Ipolita.
23 <b>Igante.</b> 6.	s. Apolinari.	23 Astizken.	s. Filipe Ben.
24 Astelehen.	sa Kristina.	24 Ostegun.	J. BARTOL., ap.
25 Asteharte.	J. JAKOBE, ap.	25 Ostirale.	s. Louis, erreg.
26 Astizken.	sa Aña.	26 Neskanegun.	s. Zefiri.
27 Ostegun.	s. Galatori.	27 <b>Igante.</b> 11.	A. B. Bihotz
28 Ostirale.	s. Nazari eta Zelza	28 Astelehen.	s. Agosti.
29 Neskanegun.	sa Marta.	29 Asteharte.	J. Joh. Lephom.
30 <b>Igante.</b> 7.	s. Abdon.	30 Astizken.	sa Rosa, Lima
31 Astelehen.	s. Inazio Loi.	31 Ostegun.	s. Remoun N.





BURUILA edo SETEMER

Eg. llaburtzen dira or. 1 eta 3/4 ez.




- ☽ l. l., 6<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 18<sup>m</sup>.
- ☾ a. o., 13<sup>n</sup>, arratseko 6<sup>or</sup> eta 19<sup>m</sup>.
- ☿ a. l., 21<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 23<sup>m</sup>.
- ☼ a. b., 28<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 8<sup>m</sup>.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☽ l. l., 5<sup>n</sup>, arrastiriko, 1<sup>or</sup> eta 3<sup>m</sup>.
- ☾ a. o., 13<sup>n</sup>, goizanko, 11<sup>or</sup> eta 12<sup>m</sup>.
- ☿ a. l., 21<sup>n</sup>, arrastiriko, oren 1<sup>or</sup>.
- ☼ a. b., 28, goizanko 7<sup>or</sup> eta 7<sup>m</sup>.



- |                          |                          |
|--------------------------|--------------------------|
| 1 Ostirale.              | s. Jiles.                |
| 2 Neskanegun.            | D. Justi.                |
| 3 <b>Igante.</b> 12.     | s. <i>Lizier</i> .       |
| 4 Astelehen.             | sa Frantz. Ch.           |
| 5 Asteharte.             | s. Laurenz J.            |
| 6 Astizken.              | s. Onesiforo.            |
| 7 Ostegun.               | s. Zebero.               |
| 8 Ostirale.              | A. B. SORTZIA.           |
| 9 Neskanegun.            | s. Omer.                 |
| 10 <b>Igante.</b> 13.    | A. B. <i>Izen S.</i>     |
| 11 Astelehen.            | s. Iazinte.              |
| 12 Asteharte.            | s. Gi.                   |
| 13 Astizken.             | sa Ujenia.               |
| 14 Ostegun.              | Da Khurutze.             |
| 15 Ostirale.             | s. Nikomede.             |
| 16 Neskanegun.           | s. Ziprien.              |
| 17 <b>Igante.</b> 14.    | A. <i>B. Dolor.</i>      |
| 18 Astelehen.            | s. Jusef Kup.            |
| 19 Asteharte.            | s. Janvier.              |
| 20 Astiz. <i>IVTh.B.</i> | s. Eustache.             |
| 21 Ostegun.              | J. MATHIU, Eb.           |
| 22 Ostir. <i>IVTh.B.</i> | S. Maor.                 |
| 23 Nesk. <i>IVTh.B.</i>  | sa Tekla.                |
| 24 <b>Igante.</b> 15.    | A. B. <i>Librazalia.</i> |
| 25 Astelehen.            | s. Aostinde.             |
| 26 Asteharte.            | s. Tomas Vil.            |
| 27 Astizken.             | s. Kosme et D.           |
| 28 Ostegun.              | s. Faoste.               |
| 29 Ostirale.             | J. MIGEL, ark.           |
| 30 Neskanegun.           | s. Jeronimo.             |

- |                       |                       |
|-----------------------|-----------------------|
| 1 <b>Igante.</b> 16.  | ARRUSARIOA.           |
| 2 Astelehen.          | Ainguru Beg.          |
| 3 Asteharte.          | s. Binzezlas.         |
| 4 Astizken.           | s Frantzes, As.       |
| 5 Ostegun.            | s. Apolinari.         |
| 6 Ostirale.           | s. Bruno.             |
| 7 Neskanegun.         | s. Fide.              |
| 8 <b>Igante.</b> 17.  | A. B. <i>Amatarz.</i> |
| 9 Astelehen.          | s. Denis.             |
| 10 Asteharte.         | s. Frantzes B.        |
| 11 Astizken.          | sa Sabina.            |
| 12 Ostegun.           | sa Daonina.           |
| 13 Ostirale.          | s. Edoart.            |
| 14 Neskanegun.        | s. Kalista.           |
| 15 <b>Igante.</b> 18. | A. B. <i>Garbit.</i>  |
| 16 Astelehen.         | s. Beltran.           |
| 17 Asteharte.         | sa Edvije.            |
| 18 Astizken.          | J. LUK, Eb.           |
| 19 Ostegun.           | s. Grat, Ol.          |
| 20 Ostirale.          | s. Johane K.          |
| 21 Neskanegun.        | sa Ursula.            |
| 22 <b>Igante.</b> 19. | A. B. <i>Patron.</i>  |
| 23 Astelehen.         | s. Leotade.           |
| 24 Asteharte.         | s. Rafael, ark.       |
| 25 Astizken.          | s. Krespi.            |
| 26 Ostegun.           | s. Evarista.          |
| 27 Ostirale.          | s. Fronton.           |
| 28 Neskanegun.        | J. SIMOUN, ap.        |
| 29 <b>Igante.</b> 20. | sa <i>Usebia.</i>     |
| 30 Astelehen.         | s. Kasien.            |
| 31 Asteharte.         | s. Zirizio.           |



AZAROA edo GOROTZILA  
Egunak Ilaburtzen dira orenez.




- ☽ *l. l.*, 4<sup>n</sup>, gaiko 1<sup>or</sup> eta 48<sup>min</sup>.  
 ☽ *a. o.*, 12<sup>n</sup>, goizanko 5<sup>or</sup> eta 20<sup>m</sup>.  
 ☽ *a. l.*, 20<sup>n</sup>, gaiko 1<sup>or</sup> eta 43<sup>m</sup>.  
 ☽ *a. b.*, 26<sup>n</sup>, arrastiriko 4<sup>or</sup> eta 56<sup>m</sup>.

ABENTIA edo NEGILA  
Eg. Ilaburtzen dira 27<sup>min</sup>, 22<sup>no</sup>



- ☽ *l. l.*, 3<sup>n</sup>, arratseko 6<sup>or</sup> eta 47<sup>m</sup>.  
 ☽ *a. o.*, 11<sup>n</sup>, arratseko 11<sup>or</sup> eta 35<sup>m</sup>.  
 ☽ *a. l.*, 19<sup>n</sup>, gaiherdi eta 18<sup>m</sup>.  
 ☽ *a. b.*, 26<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 13<sup>m</sup>.




1 Astizken.	DONISANTORE.
2 Ostegun.	<i>Purg. arimak.</i>
3 Ostirale.	s. Zebero.
4 Neskanegun.	s. Charles Bor.
5 <b>Igante.</b> 21	<i>Errelikia s<sup>k</sup>.</i>
6 Astelehen.	s. Leonart.
7 Asteharte.	s. Florent.
8 Astizken.	Lao Martirak.
9 Ostegun.	s. Teodoro.
10 Ostirale.	s. Andreu Av.
11 Neskanegun.	J. MARTINE.
12 <b>Igante.</b> 22	ELIZEN SAKR.
13 Astelehen.	s. Stanizlaz K.
14 Asteharte.	s. Didazi.
15 Astizken.	s <sup>a</sup> Jerrtruda.
16 Ostegun.	s Edmon.
17 Ostirale.	s. Gregori T.
18 Neskanegun.	s. Odon.
19 <b>Igante.</b> 23	s <sup>a</sup> <i>Elisabet Ong.</i>
20 Astelehen.	s. Felis. Valesi.
21 Asteharte.	A. B. <i>Eskentzia</i>
22 Astizken.	s <sup>a</sup> Zezila.
23 Ostegun.	s. Klement.
24 Ostirale.	s. Johane Kh.
25 Neskanegun.	s <sup>a</sup> Katalina.
26 <b>Igante.</b> 24	s. <i>Petiri Alk.</i>
27 Astelehen.	s. Virjile.
28 Asteharte.	s. Maurino.
29 Astizken.	s. Saturni.
30 Ostegun.	J. ANDREU, Ap.

1 Ostirale.	s. Eloe.
2 Neskanegun.	s <sup>a</sup> Bibiana.
3 <b>Igante.</b>	ABENTUKO 1 <sup>a</sup>
4 Astelehen.	s <sup>a</sup> Barbara.
5 Asteharte.	s. Frantzes Zab.
6 Astizken.	s. Nikolas.
7 Ostegun.	s. Ambrosi.
8 Ostirale.	A. B. KONZEP.
9 Neskanegun.	s. Jeronez.
10 <b>Igante.</b>	<i>Abentuko 2<sup>a</sup>.</i>
11 Astelehen.	s. Daniel.
12 Asteharte.	s. Melkiade
13 Astizken.	s. Valeri.
14 Ostegun.	s. Arzene.
15 Ostirale.	s. Mismoñ.
16 Neskanegun.	s. Eusebio.
17 <b>Igante.</b>	<i>Abentuko 3<sup>a</sup>.</i>
18 Astelehen.	s. Gazieñ.
19 Asteharte.	s. Urbeñ.
20 Astiz. <i>IV Th. B.</i>	s. Liberat.
21 Ostegun.	J. Tomas, Ap.
22 Ostir. <i>IV Th. B.</i>	s. Flavieñ.
23 Nesk. <i>IV Th. B.</i>	s. Oñorat.
24 <b>Igante.</b>	<i>Abentuko 4<sup>a</sup></i>
25 Astelehen.	EGUBERRI.
26 Asteharte.	J. EZTEBE, m.
27 Astizken.	J. JOHANE, eb.
28 Ostegun.	Haor Inozent.
29 Ostirale.	s. Tomas, K.
30 Neskanegun.	s. Manzuet.
31 <b>Igante.</b>	s. Zilbestre.



OURTHEKO HAROAK :


BEDATSIA hasten da martchoko	20 <sup>an</sup> .
UDA hasten da arramaiatzeko	21 <sup>an</sup> .
LARRAZKENA hasten da buruilako	23 <sup>an</sup> .
NEGIA hasten da abentuko	22 <sup>an</sup> .




MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK

MAOLEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, buruilako 6<sup>n</sup>. — ATHAR-  
 RATZEN : **m.**, astelehenez, amoustetik ; **f.**, Phentekoste bihara-  
 menian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANÉ  
 GARAZIN : **m.**, asteleh. amous. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste  
 ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**,  
 Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26<sup>n</sup>. — GARRUZEN :  
**m.**, ostir. amoust. ; **f.**, agorrila 1<sup>n</sup> *eta* azaroko lehen astizkenian.  
 — IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthail. 3<sup>n</sup> *eta*  
 aphiril. 15<sup>n</sup>. — AHAZPARNEN : **m.**, asteh. amoust. ; **f.**, Bazko ondo-  
 ko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh. amoust. — NAVARENKOSEN :  
**m.**, astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizk<sup>n</sup>, *eta* abentu 8<sup>n</sup>. —  
 ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen  
 asteh<sup>n</sup>. — OLOROUN : **m.**, ostir. *eta* asteh. ; **f.**, maiatz. 1<sup>n</sup> ;  
*eta* buruila 8<sup>n</sup>, hirour eg. — PAOBEN : **m.**, astel. *eta* osteg.,  
**f.**, Gorozum. lehen asteleh<sup>n</sup>, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. —  
 SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranth. heren astizk<sup>n</sup> *eta* urrie-  
 tako azken ostegunian. — SALBATARREN : **m.**, neskanegunian.





# Edirengia



I. Aita Saintia eta Gobernia.....	49
II. Khountu zahar : Ostatu chouria.....	52
III. Laborarier aholku.....	55
IV. Laborantchaz :	
1. Uztak 1904 <sup>an</sup> .....	61
2. Lursagarren eritarzun berribat.....	64
3. Gorotzurphoko ichouriaren balia.....	65
4. Naboa.....	66
5. Baratze aitzurtzia larrazkenian.....	68
V. Istoria eta erasi.....	70

